

**EBAZPENA, 2025eko abenduaren 10ekoa, Unibertsitate Politikako
Sailburuordearena, 2025-2026 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi
mailako ikasketa batzuk egiteko bekak ebazten dituenak.**

2025ko uztailaren 1eko aginduaren bidez (2025ko uztailaren 18ko EHAA), Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2025-2026ko ikasturtean unibertsitateko eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2025eko azaroaren 24an 2. ebazpen-proposamena argitaratu eta jakinarazi ondoren, beka orokorrari buruzko 2. ebazpena argitaratu da honako pertsona hauentzat: proposamena onartu dutenak, alegaziorik aurkeztu ez dutenak, eta alegazioak aurkeztu eta ebatzita daudenak.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozedurako gainontzeko arauak bete ondoren

EBAZTEN DUT

1.- 2025-2026 ikasturtean unibertsitate-ikasketak eta beste goi mailako ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei 2. ebazpena jakinaraztea. Eranskinean zerrendatzen dira emandako eta ukatutako eskabideak. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpenaren xehetasunak.

2.- Eranskinean emandako beka-eskabideak dituzten eskatzaileei dagokien zenbatekoa ordaintzea.

3.- Eranskinean agertzen diren eskatzaileei jakinaraztea ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez diezaioketela Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburuari. Errekurtsua aurkezteko epea hilabetekoa da, egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 10a.

Xabier Aizpurua Telleria
Unibertsitate Politikako Sailburuordea